



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 16a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berriazko kanpaina bat prestatu, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berriazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa. Maite Esporriñ Las Heras andreak aurkeztu du (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua emateko, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroan ETBren seinale digitala emititzeari buruz egindako eskariari Barne Ministerioak emandako erantzunari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (6. or.).
- Galdera, ezagutzeko zein den Nafarroako Gobernuaren balorazioa Industria Ministerioak ETBren emisiorako beste mutiplex bat emateari ezezkua eman izanari buruz eta zein neurri hartuko dituen ETB TDT bidez hartu ahal izatea bermatzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, gaixo bat ebola kasu bat izan zitekeelakoan ospitaleratu ondoren Tuterako ospitaleak jarraituriko jokabideari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (7. or.).
- Galdera, abiadura handiko trenbidearen obrei eta finantzaketari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren arteko bileran lorturiko akordioei buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (9. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Arlo fiskalean Nafarroaren autogobernuak duen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2014ko irailaren 10ean onetsitako erabakiak (10. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat prestatu, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat prestatu, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrereko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren aurkako berariazko kanpaina bat prestatu, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikastetxeetan nerabeei zuzenduta eginen dena.

Nerabeen arteko harreman sentimentalei buruzko azken azterlan eta inkestek erakusten dutenez, hamahiru eta hemeretzi urte bitarteko gazteek nahasi egin ohi dituzte genero indarkeria

eta maitasun-agerraldiak, eta adin horretan teknologia berriak erabili ohi dituzte tratu txarretarako tresna gisa. Ugariak dira genero indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta informazioak, eta iritsi iristen dira gaztetxoengana; diskurtsoa ezagutu ezagutzen dute, baina, kasurik gehienetan, ez dira gauza diskurtsoa beren bikote harremanetara eta eguneroko bizitzara eramateko.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako azken inkestak jasotzen duenez –"Gazteria eta Osasuna, 2013ko inkesta"–, kontsultatutako emakumeen % 17k onartzen du bere bikotekideak eraso egin diola, ahoz (% 45,6), modu fisikoan (% 29,3) edo modu psikikoan (% 23,8); hau da, 2007an baino % 4 gehiagok. Espainiako Gobernuak, 2013ko azaroan, "Espainiako nerabeen bilakaera, berdintasunaren eta genero indarkeriaren prebentzioaren aurrean" azterlana argitaratu zuen; horren arabera, hamahiru eta hemeretzi urte bitarteko % 12k ez du uste tratu txarra denik bikotekideak mehatxu egitea edo hari mehatxu egitea, baldin eta harremana hautsi nahi badu. Azterlan horrek orobat jasotzen du nesken % 28k esaten duela bere bikotekidearen kontrol "gehiegizkoa" pairatu duela, mutilen % 16,4k aitortzen duela bere neskalaguna azken muturreraino kontrolatzen duela, eta hamar neskatik bik deklaritzen dutela sakelako telefonoaren bidez kontrolatuta daudela. Hala ere, nerabe horiek ez dute uste jokabide horiek genero indarkeria direnik.

Nerabeek maitasuna eta indarkeria nahastearen beste alarma-seinale bat da maitasun adierazpide gisa ikusten dituztela zeloak; halatan, nesken % 35,8k eta mutilen % 36,8k diote honako kontseilu hau jaso dutela: zeloak maitasun adierazpide dira.

Nerabe horiengana iristeko modurik zuzenena da ikastetxeetan kanpainak, ikastaroak eskolak

eta hitzaldiak ematea haiei genero indarkeria zer den erakusteko eta kontzientziatzeko. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero indarkeriaren aurkako

berriazko kanpaina bat prestatu, indartu, handitu, gaurkotu eta azpimarra dezan, Nafarroako ikaste-txeetan nerabeei zuzenduta eginen dena.

Iruñean, 2014ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berriazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berriazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuari buruzko honako mozio hau aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatzeko. Errege dekretuak egileen ordainsari-eskubidea garatzen du, zeina liburutegietan haien obrak maileguan emateagatik baitagokie.

Botere publikoen zaindu egin behar dute egileei beren obrarengatik dagokien ordainsari-eskubi-

dea, eta, aldi berean, baliagarri egin behar dute kulturarako eskubidea, herritar guztiena baita.

Legeak hala aginduta, "liburutegi-maileguaren-gatik kanona" ezartzeari buruzko Europako zuzentaraua ezarri eta aplikatu behar du Espainiak.

Kanon horrek zerga bat ezartzen die udalen liburutegi publikoei –Espainian halakoxeak dira gehien-gehienak–, eta kanon horren ezarpenak zailagoa egiten du du horien biziraupena, behar-beharrezkoa dena kulturarako eskubide oinarrizkoa, ziurtatzeko.

Europako legedia bidezkoa eta koherentea da. Egilerik gabe ez dago kulturarik, eta beren lanarengatik ordainsari bat jasotzeko eskubidea babestu eta sustatu behar dute Europar Batasuneko erakundeek. Argi dago, orobat, liburutegi publikoek –bereziki, autonomia erkidegoetakoek eta udaletakoek– oinarrizko zeregina dutela, funtsezkoa, gizarte nahiz kultura prestakuntzari eta orekari dagokienez Konstituzioak emandako aginduari begira.

Gure ustez, Estatuak handitu egin behar du, Estatuako Aurrekontu Orokorren bidez, udalen liburutegi publikoentzako aurrekontu-zuzkidura; hartara, egile-eskubideak kudeatzen dituzten entitateek egileentzako gizarte-eginkizuneko zereginetara bideratu beharko dute diru-sarrera horien parte handi bat (laguntza, sormenerako bekak, beharri-zan medikoak...), eta beste parte bat liburutegi publikoen funtsak erostera, eta beren konpentsazio-ordainsaria banatu beharko diete egileei –zehaztu egin beharko da horren muga ekonomikoa–, Europar Batasuneko herrialde gehienetan bezala.

Horregatik guztiagatik, eta kulturarako eskubi-dea baliagarria bihurtzeko xedez, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiazten du 2015erako nahiz hurrengo urte-erako Estatuko Aurrekontu Orokorretan handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berriazko bat, udal liburutegi publikoetako (edo, absortziorik izan bada, autonomia erkidego-etako) liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa. Kontusailak kanon osoa hartuko du 50.000 biztanle baino gutxiagoko udal-letan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiazten du berriazko kontusail bat sor dezan 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorre-

tan, parte hartze aldera kultura-, zientzia- edo hezkuntza-izaera aitortu zaien titulartasun publiko-museoek, artxiboek, hemerrotekek, fonotekek edo filmotekek ordaindu beharreko eskubideen ordainketan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiazten du aurreko gobernu sozialistak ezarritako Irakurketa Sustatzeko Plana susper dezan Kulturako Konferentzia Sektorialaren baitan.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa premiazten du herri txiki-etako liburutegi publikoak bultzatu eta babes-terko plan bat presta dezan, Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioarekin lankidetzan.

Iruñean, 2014ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua emateko, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2014ko irailaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua emateko, eta udaletako berdintasun arloko zerbitzuak eta programak finantza ditzan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar adinako finantzaketa berma dezan udal jabetzako haur eskolek kalitatezko zerbitzua eman diezaieten herritarrei, lurralde-berdintasunaren printzipioa gidari hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar adinako finantzaketa berma dezan, udaletako berdintasun arloko zerbitzuen eta programen jarraitutasuna eta kalitatea ziurtatzeko."

Iruñean, 2014ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan ETBren seinale digitala emititzeari buruz egindako eskariari Barne Ministerioak emandako erantzunari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ETBren seinale digitala emititzeari buruz egindako eskariari Barne Ministerioak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuari, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Orain dela gutxi, nazioko hedabide batek jaso du Industria Ministerioak Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari jakinarazi diela ez diola bigarren multiplexa emanen Nafarroako Foru Komunitateari ETB seinale digitalaren bidez modu "legalean" ikusi ahal izateko gure lurraldean, Estatu Gobernuoko Industria Ministerioak xedatu eta ezarritakoarekin bat.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

– Nafarroako Gobernuak zer jarrera dauka Nafarroan ETB seinale digitalaren bidez ikusi ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak batera eginiko eskariari Industria Ministerioak emandako erantzunaren aurrean? Nafarroako Gobernuak zer agertoki uste du eman daitezkeela auzi honetan?

Iruñean, 2014ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, ezagutzeko zein den Nafarroako Gobernuaren balorazioa Industria Ministerioak ETBren emisiorako beste mutiplex bat emateari ezezkoa eman izanari buruz eta zein neurri hartuko dituen ETB TDT bidez hartu ahal izatea bermatzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ezagutzeko zein den Nafarroako Gobernuaren balorazioa Industria Ministerioak ETBren emisiorako beste mutiplex bat emateari ezezkoa eman izanari buruz eta zein neurri hartuko dituen ETB TDT bidez hartu ahal izatea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Industria Ministerioak ETBren emisiorako beste mutiplex bat emateari ezezkoa eman izanari buruz? Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak ETB LTD bidez ikusi ahal izatea ziurtatzeko?

Iruñean, 2014ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, gaixo bat ebola kasu bat izan zitekeelakoan ospitaleratu ondoren Tuterako ospitaleak jarraituriko jokabideari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gaixo bat ebola kasu bat izan zitekeelakoan ospitaleratu ondoren Tuterako ospitaleak jarraituriko jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Atzo arratsaldean –2014ko irailaren 11– jakin genuen Tuteran gaixo bat ospitaleratu zutela, eta ordu batzuk geroago Iruñera eraman zutela, ustezko ebola kasu bat izan zitekeelakoan. Anali-siak eginda, zorionez, baztertu zuten ebola kasu bat zela, malaria baitzen.

Iruñera bidali ondoren, Tuterako ospitaleko garbiketa zerbitzuko langileek jardun zuten; ez zitzaien kasuari buruzko informaziorik eta kasuko segurtasun-ekipamendurik eman. Antza denez, geroago eman zitzaien horren berri.

Gauzak horrela, hauxe galdetzen diogu Osasuneko kontseilariari:

- Gobernuaren ustez, kasuaren ezaugarriak ikusita, zuzen jokatu al da eta Tuterako ospitaleko

garbiketa zerbitzuko langileen segurtasuna ziurtatu al da?

- Nafarroako Osasun-sistema Publikoa benetan prestatu al dago kasu honen modukoetan jarduteko?

Iruñean, 2014ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, abiadura handiko trenbidearen obrei eta finantzaketari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, abiadura handiko trenbidearen obrei eta finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Abiadura Handiko Trenaren obrak eta finantzaketak aldatetako izan dituzte legegintzaldi honetan zehar.

Alde batetik, obrak ez dira egin hasiera batean aurreikusi zen moduan, eta, beste alde batetik, Estatuak ez du bete "Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF-Trenbide-azpiegiturak Administrazio Entze Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan eraikitzea", zeina 2010eko apirilaren 19an sinatu baitzen.

Estatuko Gobernuak ez du ezer ordaindu Nafarroako Foru Komunitateak aurreratutako dirutik. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, jakina, behartuta dago kasuko banku-kredituaren parte amortizatzeraz.

Zertan dira abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridoreko obrako kontuak? Estatu Gobernuak noiz ordainduko dio zor diona Nafarroako Foru Komunitateari? Nafarroako Gobernuak zer prozedura baliatu du edo baliatzen ari da kasuko banku-entitatearekin sinatutako kreditua amortizatzeke? Aparteko zer interes sorraraziko dizkio horrek? Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dauka obrei dagokienez eta legegintzaldi honen amaiera bitarteko finantzaketari dagokienez?

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren arteko bileran lorturiko akordioei buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren arteko bileran lorturiko akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, irailaren 18ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Zer akordio lortu zen Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta Montoro jaunaren arteko bileran? Ba al dago akordio horiek betetzeari buruzko bermerik?

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mari-sa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik

Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa zen, eta 2014ko uztailaren 4ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Arlo fiskalean Nafarroaren autogobernuak duen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2014ko irailaren 10ean onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela Nafarroako Parlamentuak 2014ko irailaren 10ean egin zuen Osoko Bilkuran onetsitako erabakiak, arlo fiskalean Nafarroako autogobernuak duen egoerari buruzko eztabaidaren ondoriozkoak.

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua bultzatzen du lehenbailehen itxi dezan Estatuarekiko akordioa, hitzarmen ekonomikoa aldatzekoa, eta honako puntuak argi gera daitezela:

1. Nafarroak ezar ditzakeela bere tributua, Estatuarekin haiek itundu gabe, azken horrek aurrez arautu ez dituen arloetan.

2. Halaber, Estatuak ezartzen dituen tributua ez direla Nafarroan aplikatzekoak, aurrez ituntzen ez badira.

3. Autonomia erkidegoen finantzaketari buruzko Lege Organikoa (LOFCA) ez dela izanen inolaz ere Nafarroan aplikatzekoak. Bestela esanda, tributuaraubideari dagokionez Nafarroak daukan eskumenari buruzko arauak Foruaren Hobekuntza eta Hitzarmen Ekonomikoa dira.

Bigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako autogobernua defendatzeko konpromisoa hartzen duela, zentzurik zabalenean, eta Estatuko erakundeei exijitzen die foru araubidea errespetatu eta babes dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak agertzen du kezka oso handia duela oinarritzko legediaren kontzeptua Estatu gehiegikeriaz erabiltzen ari delako, bereziki Foruaren Hobekuntzaren bidez Nafarroari eskumen osoa esleitua zaion kasuetan.

3. Nafarroako Parlamentuak aditzera ematen du frustrazio eta ezinegon sakona duela gobernu zentralak Parlamentu honetan sortzen diren arauak direla-eta darabilen errekurso-politikarekin, politika horrek bilatzen baitu –eta, tamalez, lortu

ere egiten baitu– Nafarroaren eskumenak nabarmen mugatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Alderdi Popularraren ardurapean dagoen gobernu zentralari eskatzea erretira ditzala Auzitegi Konstituzionalean Nafarroako legeen aurka aurkeztutako errekursoak, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio exijentzia hori bere egin dezala eta gobernu zentralari planteatu diezaioa.

Laugarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Alderdi Popularraren ardurapean dagoen gobernu zentralari eskatzea erretira dezala Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako errekurtsua, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio exijentzia hori bere egin dezala eta gobernu zentralari planteatu diezaioa.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Alderdi Popularraren ardurapean dagoen gobernu zentralari eskatzea erretira dezala 8/2013 Foru Legearen aurka –haren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonen– aurkeztutako konstituziokontarakotasuneko errekurtsua.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak agertzen du guztiz babesten duela Hitzarmen Ekonomikoa, estatuko lurraldeen arteko elkartasunetik abiatuta, eta exijitzen du haren eguneratzeak berma ditzala Nafarroako tributuen arloan dauzkan eskumenak.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak berresetzen du guztiz babesten dituela Nafarroari berme instituzionala, indar osoa eta autogobernurako ahalmena ematen dioten tresnak –esparru juridiko zabal baten barruan eta elkarren osagarriak diren elementuekin–:

– 1978ko Konstituzioa.

– Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.

Zazpigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2014ko uztailaren 22an aho batez onetsitako adierazpen instituzionala. Adierazpen horren bidez salatu zen kontraforu dela Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainaren 26an emandako epaia, zeinaren bidez baliogabetu egin baitzuen abenduaren 26ko 24/2012 Foru Legea. Epaia horrek berriro heldu zion 2012ko azaroaren 14ko epaia adierazitako teoriari, eta deuseztatu egin zuen, hala, Nafarroak zerga-alorrean duen berezko ahalmen politikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Nafarroak eskubidea duela politika fiskal, ekonomiko eta sozial berekiak zehazteko, eta adierazten du bere erabaki tinkoa dela eskubide hori Estatuko erakundeen esku-sartzeen aurrean defendatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren subiranotasun fiskala defendatzeko konpromisoa hartzen du, eta Estatuko Gobernuari eskatzen dio berariaz aitor dezan Nafarroak gai horretan duen jatorrizko ahalmena.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak lehendakariari exijitzen dio berehala erretira ditzala Nafarroako Parlamentuak –Nafarroako herritarren subiranotasunaren gordailua denak– zilegitasunez hartu dituen erabakiak eraginik gabe uzteko aurkeztu dituen errekurtsio eta ekimen guztiak.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak, 2011ko abendutik Alderdi Popularrak gidatuak, Nafarroaren foru autogobernua eta eskumenak eta Parlamentu honen erabakiak direla-eta errespeturik gabe eta haien aurka jokatu duela, eta Estatuko oinarritzko legediaren nahiz konstituziokontraktasuneko errekurtsioen erabilera alderdikoi eta justifikazio zein neurririk gabekoa egin duela.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak kritikatzeko du Nafarroako Gobernuaren jarrera adeitsu eta onarpenekoa, Nafarroako foru autogobernua dela-eta Espainiako Gobernuak izan duen jokabide errespeturik gabekoari eta aurkakoari dagokionez.

Hamaikagarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroaren autogobernuaren aldeko konpromisoa, eta autogobernu hori Nafarroak bere eskumenak zilegitasunez baliatuz darabilen deritza.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Espainiako Gobernuak Parlamentu honek onetsitako foru legeen aurka baliatzen duen konstituziokontraktasuneko errekurtsioen jartze sistemati-

koa.

3. Nafarroako Parlamentuak deritza errekurtsio horiek Espainiako Gobernuak ez dituela Estatuen eskumenen defentsan jartzen, baizik eta onetsitako legeen eduki zehatzarekin ideologikoki ados ez egoteagatik.

4. Nafarroako Parlamentuak salatzen du kontraforu dela Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainaren 26an emandako epaia, zeinaren bidez baliogabetu baitzen Parlamentu honek aho batez onetsitako 24/2012 Foru Legea. Epaia horrek berriro heldu zion 2012ko azaroaren 14ko epaia adierazitako teoriari, eta ukatu egiten zuen, hala, Nafarroak zerga-alorrean duen berezko ahalmen politikoa, eta Estatuko boterearenaren baldintzapean jarri zuen alor guztietan.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Parlamentu honek onetsitako foru legeen aurka Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsioak erretira ditzan, eta leialtasun instituzionaleko jarrera izan dezan Nafarroa bere autogobernuaz zilegitasunez baliatzen baita.

6. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du lan-arloko erreforma babesteko Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren larritasuna, Nafarroako Parlamentuaren errekurtsio ezetsita.

7. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Nafarroak eskubidea duela politika berekiak zehazteko, bai eta bere borondate tinkoa dela eskubide hori Estatuko erakundeen esku-sartzeen aurrean defendatzea.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren subiranotasun fiskala defendatzeko konpromisoa hartzen du, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio berariaz aitor dezan Nafarroak gai honetan duen jatorrizko ahalmena.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du erabaki politiko eta juridikoak har ditzan Nafarroako eskumen berekietan zuzenean eragiten duen oinarritzko legedia aplikaezina izan dadin.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du estrategia bat garatu beharra dagoela Estatuarekiko datorren hitzarmen ekonomikoa negoziatzeko, honakoak oinarri hartuta:

1. Parlamentu-taldeek artean ahal den adostasun eta batasun handienak lortzea, edukiei eta jarraitu beharreko estrategiari dagokionez.

2. Nafarroak Negoziazio Batzordean daukan ordezkariak datozen asteetan osatzea, parlamen-

tu-talde guztien eta Nafarroako Gobernuaren partehartzearekin.

3. Halaber, Nafarroak aholku-batzorde tekniko bat sortuko du egungo egoera, perspektibak eta etorkizuneko beharrak aztertuko dituena, bai eta Hitzarmen Ekonomikoaren edukia ere.

4. Aurreko puntuarekin batera, aldi berean, Hitzarmen Ekonomiko indardunaren aldaketa bat egiten hastea, 2014ko ekaineko epaiaren ondorioei konponbidea emateko, edukian Nafarroaren zerga- eskumenari eusteko behar diren aldaketak eginez, eta eraginik gabe uztea epai horrek gai horretan izan ditzakeen ondorioak. Kasu honetan ere, Nafarroako ordezkari bat osatuko da Batzorde Negoziatzailean, bigarren lerrokadan jasotako modu berean.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du ez dezan Auzitegi Konstituzionalean errekurtsorik aurkeztu zerga- eta tributuz-arloetan Nafarroako Parlamentuak onesten dituen legeen aurka.

Hamalaugarrena. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroaren autogobernuaren aldeko konpromisoa, eta autogobernu hori Nafarroak bere eskumenak zilegitasunez baliatuz darabilen deritza.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak aditzera ematen du ez dagoela ados Konstituzio Auzitegiaren 2012ko urriaren 14ko eta 2014ko ekainaren 26ko epaien edukiarekin, eta eduki hori dela eta kezka duela, zeren eta Nafarroako Parlamentuaren ustez ez baitira errespetatzen eskumen-araubidea eta Hitzarmen Ekonomikoaren sistemaren oinarriak.

Halaber, Parlamentuak Estatuko botereei eskatzen die zuzen dezatela epai horietatik heldu den egoera larria eta egoera hori bera, eta berreskuratu dadila, hala, Hitzarmen Ekonomikoko 1. artikulua, Foruaren Hobekuntzako 45. artikulua eta Konstituzioko lehen xedapen gehigarriaren letra eta espiritua.

Iruñean, 2014ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera